Hirugarrena.- Interes publikoko adierazteak ez du administrazio bidea amaitzen, ezta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik; dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, Kripango Udalak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena ematen duen arte. Orduan aurkeztu ahal izango da ebazpen horren aurkako errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abuztuaren 6a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

Tercero.- La declaración de interés público no pone fin a la vía administrativa ni impide su continuación y, consecuentemente, no resulta susceptible de recurso alguno, que únicamente podrá dirigirse contra la Resolución de otorgamiento o denegación de la licencia por parte del Ayuntamiento de Kripan, en calidad de Órgano competente para dictar el acto administrativo que proceda.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de agosto de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**5840**

**379/2009 FORU AGINDUA, uztailaren 17koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Lantaróngo udal planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualari buruzko espedientea, Turisoko 35-5-20 lurzatiari dagokiona.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko urriaren 8an, Lantaróngo Udalak hasierako onarpena eman zion udal planeamenduko arau subsidiarioen erreferentzia aldaketari. Halaber, espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere erabaki zuen eta, horretarako, iragarkiak argitaratu zituen ALHAOn (121 zk.), 2008ko urriaren 22an, El Correo egunkarian, 2009ko urtarrilaren 20an, eta udal iragarki taulan.

Bigarrena.-Turisoko Administrazio Batzarrari hasierako onarpen horren berri eman zitzaion, eta hark espediente horri baiezkoa eman zion, 2008ko abenduaren 7an.

Hirugarrena.- Jendaurreko informazio aldian, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, 2008ko abenduaren 10eko bilkuran.

Laugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aldeko iritzia agertu zuen, apirilaren 1eko 2/2009 bilkuran.

Bosgarrena.- Lantaróngo Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2009ko ekainaren 16a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Seigarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak uztailaren 15eko 5/2009 bilkuran aztertu zuen espediente hau.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Norbanako batek abiarazi eta Lantaróngo Udalak izapidetutako aldaketa horrek Turisoko 5 poligonoko 20 lurzatiko 46,44 metro koadro (bideen toki sistema: erabilera eta jabari publikoko oinezkoentzako bideak) bizitegitarako hiri lurzoru (azpizona pribatua. SUR-2 ordenantzak arautua) bilakatu nahi du. Horrela, lurzati horrek egungo 301,61 metro koadroen ordez 348,05 metro koadro izango lituzke.

Bigarrena.- Aldaketaren zergatia aldatzen den agirian egindako huts batean datza. Huts hori Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Ogasun Zuzendaritzak ere egiaztatzen du; beraz, egoki irizten zaio herri bidearekiko muga aldatzeko egindako proposamenari.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, apirilaren 1eko 2/2009 bilkuran, ez du inolako trabarik jarri, lotesleak diren alderdietan, espedienteak aurrera egin dezan.

Laugarrena.- Espedientea Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuta, hauxe

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**5840**

**ORDEN FORAL 379/2009, de 17 de julio, de aprobación definitiva del expediente de 8ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lantarón, referida a la parcela 35-5-20 de Turiso.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 8 de octubre de 2008, el Ayuntamiento de Lantarón acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 121 de 22 de octubre de 2008, en el Periódico El Correo de 20 de enero de 2009 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- De dicha aprobación inicial, fue notificado el Concejo de la Junta Administrativa de Turiso, que prestó su conformidad al expediente el 7 de diciembre de 2008.

Tercero.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 10 de diciembre de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 2/2009, de fecha 1 de abril.

Quinto.- El Ayuntamiento de Lantarón remitió el expediente a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo su entrada el día 16 de junio de 2009.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 5/2009, de 15 de julio.

FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación, promovida por un particular y tramitada por el Ayuntamiento de Lantarón, tiene por objeto reconvertir 46,44 $m^2$ suelo de la parcela 20 del polígono 5 de Turiso, de Sistema Local de Comunicaciones, “Viales peatonales de uso y dominio público”, en Suelo Urbano Residencial Subzona Privada, regido por la Ordenanza SUR-2. De esta manera, dicha parcela pasa de 301,61 $m^2$ suelo a medir 348,05 $m^2$s.

Segundo.- La modificación se fundamenta en que el documento que se modifica recoge un error anterior tal y como certifica la Dirección de Hacienda del Departamento Foral de Hacienda por lo que procede la modificación del lindero a vía pública que se propone.

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco 2/2009 de 1 de abril no ha puesto objeción al expediente en los aspectos en que su informe es vinculante.

Cuarto.- El expediente ha sido tramitado según lo dispuesto en el art. 90 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Lantaróngo udal planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualari buruzko espedientea, Turisoko 35-5-20 lurzatiari dagokiona. Espediente hori Florencio Landeras Angulo jaunak sustatu eta Lantaróngo Udalak izapidetu du.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 17a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 8ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lantarón, referente a la parcela 35-5-20 situada en Turiso, promovido por D. Florencio Landeras Angulo y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 17 de julio de 2009.– El Diputado De Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**5827**

**299/2009 FORU AGINDUA, uztailaren 27koa, “Inmersiones’09” deialdia onartzen duena.**

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak arte garaikidearen herritarren jarduna suspertzeko ekintzen artean egoki jo du “Inmersiones’09” deialdirako deia egitea.

Aginduzko txostena ikusi da.

Horregatik, nire esku dauden ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. “Inmersiones’09” deialdia onartzea eta deialdi hori 6.000 euroz hornitzea.

Bigarrena. Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2009ko aurrekontuaren ondorengo partidaren kontura egingo da: 70.1.02.72.02. 223.03.02 “Proyecto Amárica”. Xedapen erreferentzia: 105.3810.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 27a.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.– Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**5827**

**ORDEN FORAL 299/2009, de 27 de julio, que aprueba la convocatoria “Inmersiones’09”.**

El Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, dentro del conjunto de actividades tendentes a estimular el mundo local del arte contemporáneo, ha estimado oportuno convocar “Inmersiones’09”.

Vistos el informe preceptivo

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen

DISPONGO:

Primero. Aprobar la Convocatoria “Inmersiones’09”, con una dotación de 6.000 euros.

Segundo. Aprobar las bases que regirán la presente convocatoria, que quedan unidas al expediente.

Tercero. La partida presupuestaria que ampara este gasto es la 70.1.02.72.02.223.03.02 “Proyecto Amárica”, referencia de contraído 105.3810, del Presupuesto de Gastos la Diputación Foral de Álava para 2009.

Cuarto. Publicar la presente convocatoria en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 27 de julio de 2009.– La Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.– El Director de Euskera, Cultura y Deportes, AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA.

### INMERSIONES’09

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak “INMERSIONES’09” deialdia egin du, Araban artista berriak sustatzeko, tokiko praktika artistikoen kongresu-topaketa-erakusketa formatuan.

Deialdi honen xedea gure inguruan, erkidegoan, egiten ari dena aztertzea da. “INMERSIONES’09” tokiko eta gugandik gertueneko sortzaileen lana ezagutzeko tresna bat izatea nahi da. Deialdi ireki honen bidez, tokiko (Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako, bereziki Arabako) artistei eskatzen zaie euren lan osoa edo proiektu zehatza grafikoki edo hitzez dokumentatzen duen proiektua aurkezteko. Proiektuek ikus arteen ingurukoak (margo lanak, marrazkiak, eskulturak, argazkiak, instalazioak, performance deiturikoak, bideak,

### INMERSIONES’09

El Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava realiza la convocatoria “INMERSIONES’09” para la promoción del arte emergente en nuestro Territorio, bajo el formato de congreso-encuentro-exposición de prácticas artísticas locales.

La presente convocatoria quiere sondear qué se está haciendo en nuestro entorno, en nuestra comunidad. “INMERSIONES’09” pretende ser un dispositivo para conocer el trabajo de creadores locales y de nuestro ámbito más cercano. A través de esta convocatoria abierta se solicita a los artistas locales (País Vasco y Navarra, con especial atención a los alaveses), pudiendo tratarse de un proyecto en el que documenten gráfica y textualmente su labor o un proyecto concreto. Los proyectos tienen que estar relacionados con las artes